

JESUSEN JARRERA JAINKOAREN AURREAN¹

Jesusen bizitza ezin da Jainko Aitarik gabe ulertu. Bera da bere bizitzaren eta mezuaren muina. Ebanjelioko pasarte hauen bitartez, Jesusek Jainkoaren aurrean duen jarrera eta Harekin duen harremana ezagutuko ditugu eta guzti horretan sakondu egingo dugu.

Bi zutabeak lotu. Eskuineko laukian dagokion idazkiaren zenbakia jarri.

“Eskerrak zuri, Aita, entzuten didazulako. Nik badakit beti entzuten didazuna” (Joan 11, 41-42)	1		Jesusek bihotzez maite du bere Aita Jainkoa
“Neurekin dut bidali nauena; ez nau, ez, bakarrik utzi, hark atsegin duena egiten baitu beti” (Joan 8, 29)	2		Jesusek konfiantzazko harremana du Aitarekin. Bere Semea da
“Ene Aita, ahal bada, urrun ezazu niregandik edari samin hau. Hala ere, egin bedi zuk nahi bezala, ez nik nahi bezala” (Mateo 26, 39)	3		Hartu-eman estua du Jainkoarekin, etengabeko elkarriketan jarduten dute
“Aita maite dut eta hark agindua zintzo betetzen dut” (Joan 14, 31)	4		Erabat fidatzen da Aitaz, badaki-eta ez duela inoiz bakarrik utziko
“Aita, zure eskuetan jartzen dut bizia” (Lucas 23, 46)	5		Konfiantza osoaz jartzen da bere esku onetan
“Ez dut neurez ezer egiten, baizik eta Aitari ikasia bakarrik esaten dut” (Joan 8, 29)	6		Bere borondatea betetzen du, baldintzarik gabe obeditzen ditu bere egitasmoak
“Nik badut neure alde Joanena baino balio handiagoko testigantza: nik betetzeko Aitak nire gain utzitako egintzak” (Joan 5, 36)	7		Sakon, beste inork ez bezala ezagutzen du Aita
“Aita eta biok bat bara (...) ni Aitarekin bat eginda nago eta Aita nirekin” (Joan 10, 30-38)	8		Esaten duen guztia egia da, Aitak ezagutzera eman diolako
“Nire Aitak nire esku utzi du dena. Eta inork ez du ezagutzen Semea nor den, Aitak baizik; ezta Aita nor den ere, Semeak baizik eta Semeak agertu nahi dionak” (Lukas 10, 22)	9		Egiten duen guztia bere Aita Jainkoaren izenean eta bere aginduz egiten du
“Ni ezagutuko baninduzue, nire Aita ere ezagutuko zenukete (...) Ni ikusten nauenak Aita ere ikusten du” (Joan 8, 19; 14, 9)	10		Aitarengan bizi da eta Aita Berarengan. Aitaren isla leial eta zehatza da. Jainkoa da Aita bezala

¹ Katekesirako Galiziako Idazkaritzek eraturako *Confirmados en la fe 1*, liburuko 13. gaitik –Jesús nos descubre el rostro de Dios (83. or.) hartuta eta berreginda.